

# Ostirala, labanda usaindun izara zuri goxo garbiak

Ane Miren Azkue

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
1990



Zumaiaiko Udala

*emskar  
txanpan*



# Ostirala, labanda usaindun izara zuri goxo garbiak

Ane Miren Azkue

Julene Azpeitia 3. ipuin lehiaketa

1990

Zumaiako onenaren saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Ane Miren Azkue (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Argitu du dagoeneko, Eguzkiaren argia nire gelara sartzen da, ordulariari begiratu diot, 7:30; laster etorriko da Ama, egunero bezala, zortziak baino lehen pertsianak goraino igo eta egunona ematera, batzuetan ahaztu egiten zaio, baina hala bada, gelan sartu orduko gogoratzen da pilulez, goizean hiru: bi arroxak eta urdin bat.

Gaur nolabait egun berezia da, ekainak 21, zer esan nahi du horrek? Udara hasten dela: udara, ete, verano, summer, hainbeste eratarik esan daiteke! Urteko garairik dinamikoena, alaiena, festak, hondartza, itsasoa, ura...

Txikia nintzela beti egoten nintzen udara iritsi zain; behin Aste Santua pasa ondoren, Ikastolatik ateratakoan han joaten ginen gelako gehienok hondartzara. Hasieran oso jende gutxi jaten zen, hori bai, gure amak beti han zeuden askariarekin prest; baldin euria egiten bazuen, hondartzara joatea ezinezkoa zen, eta orduan aterpe baten bila ibili ohi ginen jolastu ahal izateko: gaur Andoniren etxean, bihar Maiteren Amonarenean...

Konturatu orduko kurtsoa amaitzen zen, eta libre ginen egunero nahi genuena egiteko, eta eguraldia lagun bagenuen, ez ginen etxean lotarako besterik sartzen; goizean gosalduta, amari zerbaitetan lagundu, hartu ogitartekoren bat hondartzan jateko eta fiuu! Hondartzara!

—Egun on! Zer moduz egin duzu lo gaur? Ondo? Gaur eguraldi zoragarria egingo du. A! Ahaztu baino lehenago: atzo zure lagunek deitu zuten, gaur arratsaldean etorriko direla...

Amari irribarre bat eskaini diot, asko pozten bainau berri honek; egiten ari den eguraldi zoragarri honekin, hondartzara joan beharrean hona etorriko dira. Gainera nire lagunak etortzen direnean oso ondo pasatzen dut, hauek berri asko ekartzen baitituzte, batez ere Amaiak, Amaia herrian gertatzen diren gauza guztiez enteratzen da, nik ez dakit nola, baina badirudi herriko berriek bere ukituaren beharra dutela aho batetik bestera pasatzeko, ez dago ezer berak ez dakienik, ezer, edo ezer gutxi behintzat. Auskalo gaur zein kontu ekarriko dituen!

Beti ez ginen lagun berdinak elkartzen, batzuetan asko izaten ginen, eta hondarrean futboleko kanpo bat marraztu ondoren, jo eta ke aritzen ginen futbolean. Gutxi ginenean penaltietara jotzen genuen, beste zenbaitetan kartak eramaten genituen jolasteko, eta palaz ere hainbat aldiz jokatu genuen; jolasteaz nekatzen ginenean hitz egin egiten genuen, horretan ere oso iaioak ginen, Mikel, Itziar eta ni hasten baginen eztabaidan ez zegoen inor guri hitza kenduko zigunik, hitz egiten oso trebea nintzen...

Nola ez, hondartzan igarotzen genituen ordu haietan hainbat eta hainbat bainu hartzen genituen, batzuk oso luzeak, batez ere uretara baloiarekin joaten baginen; beste batzuetan, itsasoaren egoeragatik batez ere, laburrak izaten ziren, laburregiak batzuetan, Gurutze Gorriko mutilak han zebiltzala oinak

bustitzeko denbora besterik ez zuen ematen. Itsasoa zakar zegoen egun horietan hoberena ibaira joatea zen; arropak Arranplan utzi, inork lapurtzeko beldurrik gabe, eta korrika joaten ginen Kresalaraino, handik uretara salto egin eta ibaiaren erdi-erditik, korrontea lagun genuelarik Arranplaraino bueltatzen ginen; gero Arranplan gelditzen ginen jolasean, ea nor botatzen zen hobeto uretara, buruz, zutik, bonba modura, gure taldeko trebeena Aitor zen, nahi zuen bezala botatzen zen.

Bihar bertan esan behar diot Mireni leiho ondoan dagoen poster hori hortik kentzeko; hasieran, Ospitaletik etorri nintzenean asko gustatzen zitzaidan; ni handik etortzerako nire gela zeharo aldatu zuten: haltzari berriak jarri zituzten, gortinak ere bai, oraingoak politagoak ziren, hormak ere zuriz margotu zituzten. Mirenek gela osoan zehar poster batzuk ipini zituen, berak esan zidanez gela pixka bat alaitzeko; baina bazen bat leiho ondoan egunetik egunera gehiago itotzen ninduen, poster surrealista bat zen, egunero begiratzen nuen, eta egunero aurkitzen nion esanahi berri bat, baina burua asko nekatu arazten zidan, zergatik ez ote dute gorputzik makurturik dauden bi haur horiek? Zergatik falta da azaltzen den gela horretako horma? Zergatik dago zuzen-zuzen Pisako Dorrea? Bihar bertan esan behar diot Mireni leiho ondoan dagoen poster hori hortik kentzeko.

Gaur gauean amets egin dut, bai amets; atleta bat nintzen, baina ez edonolako atleta, atleta oso ona nintzen; txapelketa bat nuen bakoitzeko irabazi egiten nuen, ni nintzen onena, ni nintzen azkarrena, eta amaitu orduko han etortzen zen haur pila bat nire ingurura autografo eske, nik txikitari egin ohi nuen bezala. Atleta ona nintzen munduan zehar, kontinente batetik bestera ibiltzen nintzen, etxetik kanpora irabaztea zailagoa zen baina hala eta guztiz ere beti egin ohi nuen paper on bat, egunkarrietan azaltzen nintzen, telebistakoek ere deitzen zidaten elkarriketak egiteko, korrikalaria nintzen, korrika pistan zehar, korrika, korrika... Nire ametsetan korrika ibiltzen nintzen, baina zoritxarrez hori zen, AMETSA, eta ametsak beti dira amets; errealitatean lortu ezin dugunaren isla, amets, amets, ametsetan bizi nahi nuke, korrika...

Berrito ere nire gelako atea jo dute, Ama da, besoetan izara garbiak dakarzki, ostirala, gaur ohean izara garbiak janzteko eguna da, labanda usaindun izara zuriak, izara goxoak. Amari kosta zitzaion ni ohetik jaiki gabe ohea egiten ikastea, baina Ospitaleko erizain oso jator batek erakutsi zion, eta dagoeneko, praktikarekin, erizain batek baino hobeto janzten dizkio izarak oheari. Ohea berezia da, ospitalekoen antzekoa, nahi denean oheburua altxatzen da, oinen alde ere altxa daiteke nahi bada, baina kanpoko itxura politagoa da, egurrezkoa, aitak berak aukeraturiko intxaurrekin batekin egin zituen bai ohea eta bai gelako beste haltzari guztiak ere, telebista zegoen zapalda ere intxaurrekin haren egurrekin egin zuen.

Handitzen gindoazen bezala, udara osoa jolasteko luzeegia zela ulertu genuen, gustuz bai, egon gintezkeen udarako hiru hilabeteak jolasean, baina patrikarako diru pixka bat irabazteko aukera genuela ulertu genuen, goizez lan egin eta arratsaldea hondartzara joateko, eta horrela hasi nintzen lanena kale Nagusiko Joxeren dendan; Joxek, nagusia zenez agindu egiten zuen, eta nik hark esandako guztia egiten nuen; lehenengo astea oso gogorra izan zen, eta uztekotan ere egon nintzen, baina bigarrenengo astea askoz ere hobea izan zen, lan gutxiago zegoen, eta gainera Joxe lasaiago zebilen; bestalde, begi onez hartu ninduen, eta udara bukatu baino lehen askotan bakarrik egoten nintzen

dendan, nigan konfiantza osoa zuen, eta ni ere oso gustura sentitzen nintzen negozio hura nirea bailitzan.

Lanean hasi ondoren arratsaldea nuen hondartzara joateko, bazkaldu eta hondartzara, han egoten ziren nire lagunak ere, gutako hiruk egiten genuen lan: Aitorrek Udaletxean egiten zuen lan, bertako bulegoan laguntzaile gisa, eta Jaionek berriz arrandegi batean. Baina hondartzara heldu orduko ahaztu egiten ginen gure lanez, eta ahalik eta gehien dibertitzen saiatzen ginen; batzuetan konturatzeko Eguzkia ezkututzen zen, beste batzuetan aspertu egiten ginen, batez ere Mikel ez zenean joaten, berau baitzen gure taldean martxa gehien jartzen zuena; Abuztuaren erdialdera bere aitaren herrira joaten zen bakoitzean denok nabaritu ohi genuen, eta hilaren 31 iritsi zain egoten ginen bera gure artera bueltatzeko, ongi etorria izan ohi zen.

Ea gaur arratsaldean ere etortzen den Mikel, hura hemen delarik ez dugu aspertzeko astirik izango. Lagunak datozela eta, goiza aidean ari zait pasatzen, ia hamabiak dira, dagoeneko gose pixka bat badaukat, gaur goizean Amak bazkaltzeko espinakak jarriko dituela esan dit, espinakak gaztarekin, niri gustatzen zaizkidan bezala. Ostirala denez, Amak goiz guztia etxean pasatzen du, beste egunetan bulegora joaten da, eta bazkaria prestatzeko denbora gehiago duenez, gauza goxoak, niri gustatzen zaizkidanak prestatzen saiatzen da. Bazkaltzeko ordua, jaten hasi aurretik bi pilula gorri, eta amaitzean hori bat; horiak dira guztietan gutxien gustatzen zaizkidanak, oso garrantzak baitira, baina nire onerako direnez, nola ez, hartu egin behar!

Zubi berria eraiki zuten urte berean, Abuztuaren erdi aldera hil zen Joxe, nik udaran lan egiten nuen dendaren jabea, Joxe alarguna zen, ez zuen semerik, eta bere ilobek denda ixtea erabaki zuten; eta denda horretan zazpi urtetan lan egin ondoren, hurrengo udaran han ez nuela lanik egingo banekien, pena handia ematen zidan, nolabait nirea baitzen denda, ondo ezagutzen nuen lekua, banekien txoko bakoitzean zer zegoen, ia Joxe bera baino hobeto, bere adina zela eta burueskaten hasia baitzen.

Herriak asko sentitu zuen Joxeren heriotza, momentu txarretan askori lagundutako gizona baitzen Joxe, apaizak hiletan esan zuen bezala inori txarrik egin gabeko gizona, zuena banatzen zekiena... Apaizak ondoren esan zituen hitzak ez nituen entzun, negar malkotan itotzear bainengoen!

Izandako istripuaren ondoren, bazkaldu eta gero beti egiten dut lo, ez gehiegi, ze bestela gauean kostatzen egiten zait lo hartzea; baina gaurkoan ez dut uste lo egingo dudarik, haurrak atarian jolasten ari bit dira, eta jolasten bakarrik baleude tira; gaur auzoko haur guziak gure etxeko atarian biltzea erabaki dute, behar bada borrokaren bat ere egongo da, zeren Jon eta Joseba dagoeneko elkarri irainka ari dira, elkartzen diren bakoitzeko borroka egiten dute, eta Amak esaten didanez beti besoa ez bada hanka igeltsuturik daramate; hauek orain hain etsai izanik hemendik urte batzuetara lagun onak izango dira, ziur nago hortaz. Bi hauetaz aparte badira beste neska-mutil ixilezin batzuk ere, Ama sukaldeko leihora atera eta ixiltzeko esan die, lo egin behar dudala, baina itxuraz ez zaie gehiegi axola, azken finean ez naute ezagutzen. Hala ere nik uste baino lehenago joan dira, hondartzara seguruenik.

Sarrerako atea jo dute, inor ez doa irekitzera; berriro ere jo dute, non ote dago Ama? Oso urduri jartzen naiz holako egoeretan, badakit kanpoan norbait dagoela barrura sartu nahian, baina nik ezin diot aterik ireki, ezin bainaiz ohetiki mugitu, etxean norbait bada ere ezin diot deiadar egin atea irekitzeko, nire

eztarritik ez baita ahotsik irteten. A! Badoa norbait pasilloan zehar korrika atea zabaltzera, behar bada nire lagunak izango dira; ez, hain goiz ez, haiek beranduago etortzen dira, hanken hotsengatik nire gelara datozela esango nuke, atea jo eta lehenik Ama sartu da, eta bere atzetik Milaren burua azaldu da;

—Kaixo Txikitxu! —Ikastolara joaten ginenetik Milak beti horrela deitzen zidan.

Iribarre egin diot, berak ere irribarre batekin erantzun dit, baina ezin gehiago eta negarrez hasi naiz, negarrez ikusi nauenean nigana etorri eta besarkatu egin nau, eta biok negar egin dugu.

Istripuaren ondoren ikusten nuen lehenengo aldia zen, bera Australian baitzegoen istripua izan genuenean, hamar bat egun lehenago joan zen bi urtetarako kontratu batekin. Han zegoela enteratu zen gure istripuaz, Rosak kontatu zion nola gertatu zen: Uztaileko asteburu hartan, beste askotan bezala inguruko herri txiki bateko festak ziren, eta arratsaldean, gauean bertara joateko plana egin genuen, Aitorrek eta Mikelek kotxeak bazituzten, eta horrelaxe, bi kotxetan abiatu ginen festarantz; ni Aitorrekin nindoan, baita Maite eta Rosa ere. Mikel gure aurretik abiatu zen, ez dakit zergatik, baina beti aurretik joatea gustatzen zitzaion. Bidean gindoazela, lurra bustia zirudien leku batean txirristatu zen kotxea, txirrist egin eta beste aldetik zetorren kamioitzar baten aurka jo ondoren, ibaiertzera erori ginen. Ni ez naiz beste ezertaz gogoratzen, baina Mikelek kontatzen duenez, bera berehala ohartu zen zerbait gertatu zitzaigula, bide erdian buelta eman eta istripua gertatu zen lekuraino hurreratu zen: Aitor eta Maite elkarren ondoan hilik aurkitzen ziren, Rosa nire alboan zegoen, eta zauri batzuk besterik ez zituen, eta Elenak kontatzen duenez ikaragarritzko orroak egiten zituen; ni berriz, geldi-geldirik nengoela esaten dute, begiak zabal-zabal nituelarik, baina bizirik behintzat, bizirik behintzat, baina gela honetako atea zabaltzen duen edonork ikus dezake zeinen bizirik jarraitzen dudan, bizirik... ja!

Mila Australiako kontuak ari zaizkit kontatzen, benetan han bizitza oso desberdina da, benetan, sentitzen dut Mila hain solas-lagun txarra izatea, ez baitut hitzik ere egiten, baina Mila honetan oso trebea da, eta ondo moldatzen da bakarrik hizketan lehenengo aldia izateko, ongi baitaki nire begien keinuaz entzuten diodala, nahiz eta hitzez ezin erantzun.

Konturatu gabe arratsaldea aurrera doa, eta Milak joan beharra dauka, esan didanez ilundu baino lehen hirira iritsi nahi du, eta ia hiru ordutako bidaiaren denez ezin du denbora gehiago nirekin gelditu; Amak ere esan dio nola laster etorriko diren besteak, zehazki ez zekiela nortzuk, baina nola atzo gauean Rosak deitu zuen; baina Milak nahiago izan du joan, beste batean asti gehiagorekin etorriko dela agindu dit, eta gelatik irteteko atera hurbildu denean berriro negarrez hasi naiz, eta negarrez ari diren haur txikiengana bezala etorri zait, eta bere besoez inguratu nau, eta muxu handi bat eman dit, eta berriro ere elkarrekin negar egin dugu; gero, zapi batekin malkoak lehortu dizkit, oraindik ere nire begietatik irristatzen ziren malko bustiak, berriro ere egur esan eta atera da gelatik, oraindik ere bere matrailetan malkoak agertzen zirelarik.

Amak esaten zuenez, Ospitalean igarotako egunak oso larriak izan ziren, hil ala bizi egon nintzen bi astetan, baina gero nire egoera hobetzen hasi zen pixkanaka; sendagileen laguntzaz, nire hatzak mugitzen hasi nintzen, batez ere

Eneko izeneko sendagile gazte batek laguntzen zidan, eta denbora asko igarotzen zuen nire gelan, tartetxo bat zuen guztietan nire gelara etortzen zen. Hatzak mugitzen nituen, baina besoekin ezin nuen ezer egin; oinetan berriz ez nuen orratzik ere sentitzen, eta zangoak berriz besteek mugitu behar zizkidaten. Ama egunero nire ondoan egoten zen zer "esan" nahi nuen ulertu nahian, hasieran ez baina gerora ondo ulertzen zidan, hizkuntza berri bat sortu genuen gu bion artean.

"—Lo siento, no hay nada que hacer, es un vegetal..." Entzun nuen pasilloan, nire gelako ate atzean, Trujillo sendagilearekin ari ziren hizketan nire gurasoak, hizketan jarraitu zuen Trujillo sendagileak, baina ez nion entzun nahi izan.

Istripuaren ondoren horixe naiz, landare bat, sustraiak ohean bota dituen landare bat, besteek egunero argitan jartzen duten landare bat, egunero elikatu beharra dagoen landare gaixo bat, gauza guztietarako besteen menpe dagoen landare bat, gauza guztietarako? EZ, INOREN LAGUNTZARIK GABE PENTSA DEZAKET!! Pentsamendua, horixe dut nirea, "nire" gorputzeko beste atal guztiak besterenak dira, zeren azken baten nik ez ditut erabiltzen.

Filosofia ikasi nuen garaian, Sokrates, Platon, Aristoteles eta abar aztertu genituenean, burutik beti pasatzen zitzaidan kontua zen ea nola zitekeen gizon hauek hainbeste pentsatzea, gauza nimiño bati hainbeste ertz ikustea, "Hau hau da" ezin esan izana ondorengo zergatik bat gabe. Gure irakasleak egunero zertxobait pentsatu beharra zegoela esaten zuen, egunero, oheratutakoan egunean zehar egindako gauzak aztertu behar zirela, baina nik zer aztertuko dut egun osoa ohean sarturik pasatzen badut? Edo ohean nagoenez egun guzian zehar pentsatu behar dut? Gure irakasle hari galdetuko nioke...

Ikasketak egin nituen gari hartan bagenuen beste irakasle bat, Erljioa ematen zigun, haren ustez, norik bere burua ezagutzea beharrezkoa zen bizitza honetan norbait izatera iristeko; horretarako gutako bakoitzak geure barnera sartu eta geure burua ulertu behar genuela. Dagoeneko, azken hilabete hauetan askotan sartu naiz neure barnera, neure burua ulertzen saiatzen naiz; baina bizitza honetan Norbait izatera iritsi naiz? Batzuetan gehiegi pentsatzen dudala uste dut, eta beste batzuetan, ez dudala zer pentsaturik ere etortzen zait burura, nire barnean ditudan pentsamendu guziak ezagunak egiten baitzaizkit.

Nire lagunak laster iritsiko dira; gaur nolabait egun berezia da, Ekainak 21, udara hasten da; urteko garairik dinamikoena, alaiena, festak, hondartza, itsasoa, ura...

Gaur, ekainak 21, udara hasten da, baina norentzako hasten da? Aurten ere, iaz bezala, ezingo dut hondartzara joan, ezingo dut inguruko herri txikietara hurbildu, dantzatu eta lagun berriak egin, ezingo dut Kresalatik bota eta ibaiaren erdi-erditik Arranplaraino igeri joan, ezingo dut nire lagunekin Beduaraino arraunean joan, ezingo dut... gauza asko izango dira ezingo ditudanak egin...

Gaur, ostiral bat gehiago, labanda usaindun izara zuri goxo garbiak, Amak eginiko bazkari berezia...